

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna

Biltzar Orokorrak onartu eta sinadura eta berrespenerako irekia, 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) ebazpenean

Indarrean jartzea: 1976ko martxoaren 23an, 49. artikuluekin bat etorriz

Atarikoa

Itun honetako estatu alderdiek,

Kontuan harturik, Nazio Batuen Gutunean adierazitako printzipioekin bat etorriz, gizaki guztien duintasuna eta eskubideak berberak eta besterenduezinak direla aitortzea munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri dela,

Aitortuz, eskubide horiek gizakiari dagokion duintasunak eratortzen dituela,

Aitortuz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, ezin dela gauzatu askatasun zibil eta politikoak izateari dagokionez, gizaki askearen ideala, beldurretik eta miseriatik aske den gizakiarena alegia, horretarako baldintzak sortzen ez badira, pertsona bakoitzari ahalbidetzen dizkietenak baliatzea eskubide zibil eta politikoak, bai eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak ere.

Kontuan harturik, Nazio Batuen Gutunak estatuei betebeharra ezarri diela, giza eskubideen eta askatasunen errespetu unibertsala eta eragingarria sustatzeko,

Ulerturik, gizabanakoak, beste gizabanako batzuei eta bere erkidegoari begira eginbeharrak izateagatik, ahaleginak egin behar dituela itun honetan aitortutako eskubideak sustatu eta betetzeko,

Hitzartu dute, hurrengo artikuluetan:

I. Zatia

1. artikulua

1. Herrialde guztiek dute determinazio askerako eskubidea. Eskubide horren ondorioz askatasunez zehazten dute euren izaera politikoa eta askatasunez bultzatzen dute euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena.

2. Herrialde guztiek, euren helburuak lortzeko, askatasunez xeda ditzakete euren aberastasun eta baliabide naturalak, kalterik egin gabe nazioarteko lankidetzak ekonomikoak, elkarrekiko onuraren printzipioan oinarriturik, zein nazioarteko zuzenbideak eratorritako betebeharrei. Inola ere ezin izango da herri bat bere bizibideez gabetu.

3. Itun honetako estatu alderdiek, baita autonomoak ez diren lurraldeak eta zainpeko lurraldeak administratzeko ardura dutenek ere, sustatuko dute determinazio askerako eskubidearen egikaritzea, eta eskubide hori errespetatuko dute, Nazio Batuen Gutuneko xedapenekin bat etorriz.

II. zatia

2. artikulua

1. Itun honetako estatu alderdietako bakoitzak konpromisoa hartzen du, bere lurraldean egon eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei errespetatu eta bermatzeko itun honetan aitortutako eskubideak, inolako bereizketarik egin gabe, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-ezaugarri dela bide.

2. Estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du neurri egokiak ezartzeko, bere konstituzio-prozeduren eta itun honetako xedapenen arabera, itun honetako eskubideak eragingarriak izan daitezen beharrezkoak diren legeria-xedapenak edo beste izaera batekoak emateko, baldin eta eskubide horiek alde aurretik ez bazeuden bermatuta lege-xedapenen edo beste izaera bateko xedapenen bidez.

3. Itun honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du hurrengoak bermatzeko:

a) Itun honetan aitortutako eskubideak edo askatasunak urratzen direnean, halakoak urratuak dituzten pertsonak errekurtso eragingarria jarri ahal izatea, nahiz eta urratze hori gauzatu eginkizun ofizialak betetzen ziharduten pertsonak.

b) Agintari eskudunak, halakoak izan daitezkeela epaiketa-, administrazio- edo legegintza-arlokoak, edo estatuko lege-sistemak ezarritako agintari eskudunetatik beste edonork, erabakitzea errekurtsoa jartzen duen pertsonaren eskubideen gainean, eta errekurtso judizialaren aukerak garatzea;

c) Agintari eskudunek betetzea errekurtsoa bidezkotzat jo duen erabaki oro.

3. artikulua

Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, gizon eta emakumeei berdintasuna bermatzeko, itun honetan aitortutako eskubide zibil eta politiko guztiak baliatzeko orduan.

4. artikulua

1. Salbuespenezko egoeretan, baldin eta egoera horiek nazioaren bizitza arriskuan jartzen badute eta halako egoerak modu ofizialean aldarrikatu badira, itun honetako estatu alderdiek, kasuan kasuko egoerak galdatutakora mugatuta, xedapenak eman ahal izango dituzte, itun honen ondorioz hartutako betebeharrak eteteko; edonola ere, xedapen horiek ez dira bateraezinak izango estatu alderdiei nazioarteko zuzenbideak ezarritako osterantzeko betebeharrekin, eta ez dute inolako bereizkeriarik eragingo, arraza-, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa edo gizarte-jatorria dela bide.

2. Aurreko xedapenak ez du baimentzen inolako eteterik, 6. artikuluari, 7. artikuluari, 8. artikuluko 1 eta 2. paragrafoei, 11. artikuluari, 15. artikuluari, 16. artikuluari eta 18. artikuluari dagokienez.

3. Itun honetako estatu alderdietarik edonork etete-eskubidea baliatzen badu, berehala informatu beharko ditu itun honetako gainerako estatu alderdiak, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren bidez, eten dituen xedapenen inguruan eta etete hori eragin duten arrazoien inguruan. Komunikazio berria egingo da, bide bera baliatuta, etetea bertan behera uzten den datan.

5. artikulua

1. Itun honetako xedapenetatik bat bera ere ez da interpretatuko estatu, talde edo banakako bati eskubidea aitortzeko, horren helburua denean itun honetan aitortutako eskubide edo askatasunetarik edozein ezabatzeko jardueri ekitea edo ekintzak gauzatzea, edo eskubide nahiz askatasun horiek murriztea, itun honek baimendutakotik kanpo.

2. Ezin da onartu estatu alderdi batean legeen, hitzarmenen, erregelamenduen edo ohituren ondorioz aitortutako edo indarrean dauden oinarrizko giza eskubideak murriztea edo horiei kalte egitea, aitzakiatzat jarriz itun honek ez dituela horiek aitortu edo babes gutxiagorekin aitortu dituela.

III. zatia

6. artikulua

1. Bizitza-eskubidea gizakiari datzekio. Legeak babestuko du eskubide hori. Inori ezin izango zaio bizitza kendu, besterik gabe.

2. Heriotza-zigorra indarrrik gabe utzi ez duten herrialdeetan heriotza-epaia ezarri ahal izango da deliturik larrienengatik bakarrik eta delitua egitean indarrean dauden legeekin bat etorritz, betiere, lege horiek ez badira itun honetako xedapenen aurkakoak, ezta genozidio-delitua prebenitu eta zehatzeko Konbentzioaren aurkakoak ere. Zigor hori ezarri ahal izango da soil-soilik auzitegi eskudun baten epai irmoa betetze aldera.

3. Bizitza kentzeak berarekin dakarrenean genozidio-delitua, ulertuko da artikulua honetako xedapenek ez dituztela estatu alderdiak inondik inora askatuko genozidio-delitua prebenitu eta zehatzeko Konbentzioaren xedapenen ondorioz hartutako betebeharrak gauzatzetik.

4. Heriotza-zigorrera kondenatutako pertsona orok eskubidea izango du indultua edo heriotza-epaia barkatzea eskatzeko. Amnistia, indultua edo heriotza-zigorraren barkamena edozein kasutan aitortu ahal izango dira.

5. Ez da heriotza-zigorrik ezarriko hemezortzi urtetik beherako pertsonak egindako delituengatik, eta zigor hori ez zaie aplikatuko haurdun dauden emakumeei ere.

6. Itun honetako estatu alderdiek ezin dituzte alegatu artikulua honetako xedapenak heriotza-zigorra indarrak gabe uztea atzeratu edo eragozteko.

7. artikulua

Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarririk ere. Bereziki, inori ez zaio ezarriko esperimentu mediko edo zientifikorik, baldin eta halakoak jasan behar dituenak askatasunez adostasunik ez badu ematen.

8. artikulua

1. Inork ez du esklabotzarik pairatuko. Esklabotza eta esklaboen salerosketa debekatuta egongo dira, horien mota edozelakoa izanda ere.

2. Inork ez du morrontzarik pairatuko.

3.

a) Inor ez da behartuko derrigorreko edo nahitaezko lanik egitera;

b) Aurreko idatz-zatia ezin izango da interpretatu herrialde jakin batzuetan auzitegi eskudun batek ezarri zigorra betetzea debekatzeko, zigor hori derrigorreko lana denean, baldin eta herrialde horietan zenbait delitu zigor badaitezke, espetxealdi-zigorraz ez ezik, derrigorreko lanekin ere.

c) Paragrafo honen ondoretarako, ez dira «derrigorreko edo nahitaezko lana»:

i) Aurreko b) idatz-zatian aipatutakoez gain, normalean pertsona preso bati galdatzen zaizkion lanak edo zerbitzuak, legearen arabera emandako erabaki judizial baten ondorioz, edo halako erabakiaren ondorioz preso izan den pertsonari galdatutakoak, pertsona hori baldintzapeko askatasun-egoeran dagoenean;

ii) Izaera militarreko zerbitzua eta, kontzientzia-arrazoiak direla bide horren salbuespena onartzen duten herrialdeetan, kontzientzia-arrazoiengatik zerbitzu militarren aurka daudenen zerbitzu nazionala, legearekin bat etorritik eman behar dena.

iii) Erkidegoaren bizitza edo ongizatea mehatxatzen duen arriskua edo lazeria dagoenean ezarritako zerbitzua;

iv) Ohiko gizarte-betebeharretara biltzen den lana edo zerbitzua.

9. artikulua

1. Gizabanako guztiek dute askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea. Inork ezin izango du atxilotzea edo espetxealdirik nozitu, besterik gabe. Inor ezin izango da askatasunaz gabetu, non ez den legeak jasotako arrazoiengatik eta legeak ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

2. Atxilotutako pertsona guztiek atxiloteta-unean informazioa jasoko dute, atxiloteta-arrazoiengatik inguruan, eta atxilotu horiei lehenbailehen jakinaraziko zaie egotzi zaien akusazioa.

3. Arau-hauste penal baten ondorioz atxilotuta edo preso dauden pertsona guztiak atzerapenik gabe jarriko dira epailearen edo eginkizun judizialak gauzatzeko legeak baimendutako beste funtzionario baten esku, eta atxilotu edo preso horiek eskubidea izango dute zentzuzko epean epaiketa izateko edo aske gelditzeko. Epaiketa izan behar duten pertsonen aurre-neurrizko espetxealdia ez da izan behar erregela nagusia, baina pertsona horien askatasuna berme batzuen mende izan daiteke, berme horien helburua bada akusatua epaiketa-ekitaldian edo eginbide prozesalen edozein unetan ager dadila ziurtatzea eta, hala denean, epaitza betearaztea.

4. Atxilotetaren edo espetxealdiaren ondorioz askatasunaz gabetua den pertsona orok eskubidea izango du auzitegietan errekurtsioa jartzeko, auzitegiak ahalik arinena erabaki dezan bere espetxealdiaren legezkotasunaren inguruan, eta, espetxealdia legearen aurkakoa izango balitz, beraz aske uztea agin dezan.

5. Legearen aurka atxilotu edo preso hartu den pertsona orok konponketa lortzeko eskubide eragingarria izango du.

10. artikulua

1. Askatasunaz gabetutako pertsona oro tratatuko da gizatasunez eta gizakiari datzekion duintasuna errespetatuta.

2.

a) Auzipetuak kondenatuengandik bananduta egongo dira, salbuespenezko inguruabarretan izan ezik, eta araubide desberdina izango dute, kondenatu gabeko pertsonentzat egokitutakoa;

b) Auzipetutako adingabeak adin nagusikoengandik bananduta egongo dira eta lehenbailehen jarriko dira auzitegien esku, epaituak izan daitezen.

3. Espetxe-araubidearen arabera tratamenduak helburu nagusitzat izango du zigortutako enaldaketa eta gizarte-birgaikuntza. Delitugile adingabeak adin nagusikoengandik bananduta egongo dira, eta adingabeko horiek euren adinarekin eta egoera juridikoarekin bat datorren tratamendua izango dute.

11. artikulua

Inor ez da espetxeratuko kontratu-betebeharren bat betetzeko ezintasuna izateagatik bakarrik.

12. artikulua

1. Estatu baten lurraldean legearen arabera dagoen pertsona orok eskubidea izango du, lurralde horretan zehar askatasunez joan-etortzeko eta lurralde horretan bizilekua askatasunez aukeratzeko.

2. Pertsona orok eskubidea izango du askatasunez irteteko edozein herrialdeetatik, baita norberaren herrialdeetik ere.

3. Arestian aipatutako eskubideak ezin izango dira murriztu, salbu eta murrizketok legean jaso direnean, beharrezkoak direnean segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun eta moral publikoak edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko, eta itun honetan aitortutako gainerako eskubideekin bateragarriak direnean.

4. Inor ezin da gabetu norberaren herrialdean sartzeko eskubideaz, besterik gabe.

13. artikulua

Itun honetako estatu alderdi baten lurraldean legearen arabera dagoen atzerritarra soil-soilik kanporatu ahal izango da legearen arabera hartutako erabakia betetzeko; eta, segurtasun nazionalako premiazko arrazoiek eragozten dutenean izan ezik, atzerritar horri ahalbidetuko zaio kanporaketaren aurka dituen arrazoiak azaltzea, bai eta, berriuspen ondoreetarako, bere kasua agintari eskudunaren edo agintari eskudun horrek modu berezian izendatutako pertsonaren edo pertsonen esku uztea, eta horretarako ordezkaria izatea ere.

14. artikulua

1. Pertsona guztiak berdinak dira auzitegien eta justizia-gorteen aurrean. Pertsona guztiek eskubidea izango dute, eurek esan beharrezkoa behar bezalako bermeekin entzun dezan legeak ezarritako auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek, euren aurka azaldutako akusazioetarik edozein bideratzean, akusazio horiek zigor-arlokoak direnean, edo arlo zibilean dituzten eskubide eta betebeharrak zehazteko. Prentsa eta jendea epaiketa osotik edo horren zati batetik baztertu ahal izango dira, gizarte demokratiko bateko moralaren, ordena publikoaren edo segurtasun nazionalaren arrazoiak direla bide, edo alderdien bizitza pribatuaren interesak hala galdatzen duenean edo, auzitegiaren ustez hori beharrezkoa den heinean, auziaren inguruabar bereziengatik publizitateak justiziaren interesak kaltetu ditzakeenean; nolana ere, zigor- edo gatazka-arloko epai guztiak jendaurrekoak izango dira, salbu eta adingabeen interesak aurkakoa galdatzen duenean, edo ezkontza-auziei edo adingabeen tutoretzari buruzko akusazioak daudenean.

2. Delitu bat egiteagatik akusatuta dauden pertsona guztiek eskubidea dute, errugabeak direla uste izateko, legearen arabera errudun direla frogatzen ez den bitartean.

3. Prozesuak iraun bitartean, delitu bat egiteagatik akusatutako pertsona guztiek eskubidea izango dute, berdintasun osoarekin, gutxieneko berme hauek izateko:

a) Atzerapenik gabe informazioa jasotzea, ulertzen duten hizkuntza batean eta zehatz-mehatz, euren aurka azaldutako akusazioaren izaeraren eta arrazoen inguruan;

b) Behar adina denbora eta baliabide egokiak izatea, euren defentsa prestatzeko eta eurek aukeratutako defendatzailearekin komunikatzeko;

c) Epaiketa izatea, bidegabeko atzerapenik gabe;

d) Prozesuan bertan izatea eta modu pertsonalean defendatu ahal izatea edo eurek aukeratutako defendatzaile baten laguntza izatea; informazioa jasotzea, defendatzaile baten izan ezean, defendatzailea izateko eskubidearen inguruan, eta, justiziaren interesak hala eskatzen duenean beti, eurentzako ofiziozko defendatzailea izendatzea, dohainik izendatuko dena, ordaintzeko behar adinako baliabiderik izan ezean;

e) Egozvide-lekukoei galderak egitea edo behartzea lekuko horiei galdeketa egitea, eta zuri bide-lekukoaren agerraldia lortzea, eta lekuko horiei galderak egitea, egozvide-lekukoaren baldintza berberetan;

f) Interprete baten laguntza dohainik izatea, auzitegian erabilitako hizkuntza ulertzen ez badute edo hitz egiten ez badute;

g) Nork bere buruaren aurka adierazpenik ez egitea edo nork bere burua errudun ez aitortzea.

4. Zigor-ondoretarako, adingabeei aplikatu beharreko prozeduran, kontuan hartuko dira horien adina eta gizarte-birgaikuntza bultzatzeak duen garrantzia.

5. Delitu batengatik errunduntzat jotzen diren pertsona guztiek eskubidea izango dute, kondena-epaitza eta ezarritako zigorra goragoko auzitegi baten esku utz daitezten, legeak ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Gerogarrenean, kondena-epai irmoa aurkaratzen denean edo kondenatua indultatzen denean, akats judiziala egin dela frogatzen duen egitatearen bat gertatzeagatik edo egiaztatzeagatik, epai horren ondorioz zigorra jasan duenak kalte-ordaina jaso beharko du, legearekin bat etorritik, salbu eta egiaztatzen denean berari egotz dakiokeela, oso-osoan edo zati batean, garaiz azaldu ez izana egitate ezezaguna.

7. Inor ezin izango da epaitu edo zehatu delitu bat egiteagatik, baldin eta delitu hori dela bide alde aurretik kondenatu edo aske utzi bada epai irmo bidez, kasuan kasuko herrialdeko legearekin eta zigor-prozedurarekin bat etorritik.

15. artikulua

1. Inor ez da kondenatuko egite edo ez-egiteengatik, halakoak gauzatzeko unean ez bazen horien inguruko deliturik zuzenbide nazionalaren edo nazioarteko zuzenbidearen arabera. Halaber, ez da ezarritako delitua egin zeneko garaian zein zigor aplikatu eta horren aldean astuna den zigorrak. Delitua egin ostean legeak xedatzen badu zigor arinagoa ezarri behar dela, xedapen hori onuragarri izango da delitugilearentzat.

2. Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo pertsona baten epaiketari, ezta kondenari ere, halakoaren arrazoi diren egite edo ez-egiteak delitu zirenean gauzatu zireneko garaian, nazioarteko erkidegoak zein printzipio aitortu zuzenbideko printzipio orokortzat eta halakoaren arabera.

16. artikulua

Gizaki guztiek edonon daudela ere eskubidea dute euren nortasun juridikoa aitordakien.

17. artikulua

1. Inork ez du nozituko nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik bizitza pribatuan, familian, egoitzan edo korrespondentzian, ezta ohorearen eta izen onaren aurkako erasorik ere, halakoak legearen aurkakoak direnean.

2. Pertsona guztiek eskubidea dute, legearen babesa izateko halako esku-sartze edo erasoen aurka.

18. artikulua

1. Pertsona guztiek pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna dute; eskubide horrek bere baitara bilduko du euren aukerako erlijioa edo sinesmenak izan edo bereganatzea, bai eta euren erlijioa edo sinesmenak banaka edo kolektiboan agertzeko askatasuna ere, jendaurrean nahiz modu pribatuan, kultu, erritu-ospakizun, eginera eta irakaskuntzaren bidez.

2. Inork ez du neurri hertsagarrikerik jasango, halakoek kaltetu dezaketenean norberaren askatasuna, aukerako erlijioa edo sinesmenak izan edo bereganatzeko.

3. Norberaren erlijioa edo sinesmenak agertzeko askatasunaren muga bakarrak izango dira legeak ezarritakoak, halakoak beharrezkoak direnean segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerako oinarritzko eskubide eta askatasunak babesteko.

4. Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, errespetatzeko gurasoen askatasuna, eta, hala denean, legearen arabera tutoreen askatasuna, seme-alabei eskain diezaieten euren pentsaerekin bat egiten duen erlijio- eta moral-hezkuntza.

19. artikulua

1. Edonork du iritzia emateko eskubidea, inolako trabarik izan gabe.

2. Pertsona guztiek dute adierazpen-askatasunerako eskubidea; eskubide horretara biltzen da era guztietako informazioak eta ideiak bildu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo eurek aukeratutako beste edozein prozedura baliatuta.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoan jasotako eskubide horren egikaritzak egin behar eta ardura bereziak eratortzen ditu. Ondorenez, eskubide horren egikaritzak murrizketa batzuk izan ditzake; aitzitik, legeak esanbidez finkatu beharko ditu horiek eta halakoak beharrezkoak izan beharko dira:

a) Enparauen eskubideak nahiz izen ona errespetatzea ziurtatzeko;

b) Segurtasun nazionala edo ordena publikoa babesteko edo osasun nahiz moral publikoak babesteko.

20. artikulua

1. Legeak gerraren aldeko propaganda guztia debekatuko du.
2. Legeak debekatuko du bereizkeria, borroka edo indarkeria eragiten dituen nazio-, arraza- edo erlijio-gorrotoaren edozein apologia.

21. artikulua

Bilera baketsuak egiteko eskubidea aitortzen da. Legeak ezarritako murrizketek bakarrik murriz dezakete eskubide horren egikaritzea, murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala, segurtasun publikoa edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen osasun nahiz moral publikoak edo eskubide eta askatasunak babesteko.

22. artikulua

1. Pertsona orok eskubidea du beste batzuekin askatasunez elkartzeko, baita sindikatuak sortu eta aukeratutako horretan afiliatzeko ere, bere interesak babesteko.
2. Legeak ezarritako murrizketek bakarrik murriz dezakete eskubide horren egikaritzea, murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala, segurtasun publikoa edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen osasun nahiz moral publikoak edo eskubide eta askatasunak babesteko. Artikulu horrek ez du eragotziko lege-murrizketak ezartzea eskubide horren egikaritzari, eskubideok egikaritu behar dituztenean indar armatuetako eta poliziako kideek.
3. Artikulu honetako xedapenek ez diete baimenik emango, 1948ko Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hitzarmenean, sindikatu-askatasunari eta sindikatuko kide egiteko eskubidea babesteari buruzkoan, alderdi diren estatuei, legegintzazko neurriak hartzeko, halakoek kalte egin diezaieketenean hitzarmen horretan jasotako bermeei, edo legea aplikatzeko, horrek berme horiei kalte egin diezaieketenean.

23. artikulua

1. Familia gizartearen osagai natural eta funtsezkoa da, eta familiak eskubidea du gizarteak eta estatuak berau babes dezaten.
2. Gizonaren eta emakumearen eskubidea aitortzen da, ezkontzeko eta familia osatzeko, horretarako adina badute.
3. Ezin izango da ezkontzarik egin ezkongaien adostasun aske eta erabatekorik gabe.
4. Itun honetako estatu alderdiek egoki diren neurriak hartuko dituzte, ezkontzari dagokionez bi ezkontideen eskubideak eta ardurak berberak izatea ziurtatzeko,

ezkontuta dauden bitartean eta ezkontza desegiten denean. Ezkontza desegiten denean, seme-alabei behar adinako babesak ziurtatzeko xedapenak emango dira.

24. artikulua

1. Haur guztiek eskubidea dute, inolako bereizkeriarik gabe, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila edo jaiotza dela bide, adingabearen egoerak behar duen babes-neurriak izateko, familiak eskaini beharrekoak eta gizarteak nahiz estatuak eskaini beharrekoak.

2. Haur guztiak inskribatuko dira jaio eta berehala, eta haur guztiek izen bat izan beharko dute.

3. Haur guztiek naziotasunen bat eskuratzeko eskubidea dute.

25. artikulua

Herritar guztiek izango dituzte, 2. artikuluan aipatutako bereizketarik gabe eta bidegabeko murrizketarik gabe, hurrengo eskubideak eta aukerak:

a) Arazo publikoetan parte hartzea, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez;

b) Botoa ematea eta hautatua izatea benetako eta aldizkako hauteskundeetan, halakoak egiten direnean sufragio unibertsal eta berdinen bidez eta hautesleen borondatea askatasunez agertzea bermatzen duen boto sekretuaren bidez;

c) Berdintasun-baldintza orokorretan sarrera izatea euren herrialdeko funtzio publikoan.

26. artikulua

Pertsona guztiak berdinak dira legearen arabera, eta eskubidea dute, bereizkeriarik gabe, legearen babesak izateko. Hartara, legeak bereizkeria oro debekatuko du, eta pertsona guztiei babes bera eta eragingarria bermatuko die, edozein bereizkeriaren aurka, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-ezaugarri dela bide.

27. artikulua

Gutxiengo etnikoak, erlijiosoak edo linguistikoak dauden estatuetan, gutxiengo horietara bildutako pertsonen ez zaie ukatuko dagokien eskubidea, euren taldeko gainerako kideekin batera, euren kultura-bizitza propioa izateko, euren erlijioa izan eta praktikatzeko eta euren hizkuntza erabiltzeko.

IV. zatia

28. artikulua

1. Giza Eskubideen Komitea ezarriko da (aurrerantzean Komitea deituko dena). Komitea hemezortzi kidek osatuko dute, eta Komiteak aurrerago zehazten diren eginkizunak izango ditu.
2. Komitea osatuko dute itun honetako estatu alderdietako nazionalak; nazional horiek izan beharko dute moral aldetik zintzotasun handikoak, eta giza eskubideen arloan ageriko trebetasuna dutenak. Kontuan hartuko da eskarmentu juridikoa duten pertsona batzuek parte hartzearen onura.
3. Komiteko kideak modu pertsonalean hautatuko dira, eta kide horiek modu pertsonalean jardungo dute euren eginkizunetan.

29. artikulua

1. Komiteko kideak isilpeko botazio bidez hautatuko dira, 28. artikuluko baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrenda batetik, pertsona horiek proposatuko dituztela itun honetako estatu alderdiek.
2. Itun honetako estatu alderdi bakoitzak gehienez bi pertsona proposatu ahal izango ditu. Pertsona horiek zein estatuk proposatu eta estatu horretako nazionalak izango dira.
3. Pertsona bera behin baino gehiagotan proposatu ahal izango da.

30. artikulua

1. Hasierako hautatzea egingo da, gehienez ere, itun hau zein datatan indarrean jarri eta data horretatik sei hilabete igaro ondoren.
2. Komitea hautatu baino lau hilabete lehenago gutxienez, betiere, hautatzearen arrazoia ez bada 34. artikulurekin bat datorren hutsune bat betetzea, Nazio Batuetako idazkari nagusiak idatziz gonbidatuko ditu itun honetako estatu alderdiak, Komiterako hautagaiak aurkeztera, hiru hilabeteko epean.
3. Nazio Batuetako idazkari nagusiak zerrenda prestatuko du, hurrenkera alfabetikoaren arabera, aurkeztutako hautagaiekin, hautagai horiek izendatu dituzten estatu alderdiak zehaztuz, eta itun honetako estatu alderdiei komunikatuko die zerrenda hori, gehienez ere, hautaketa bakoitza egin baino hilabete lehenago.
4. Komiteko kideak itun honetako estatu alderdien bilera batean hautatuko dira; bilera horren deialdia Nazio Batuetako idazkari nagusiak egingo du, eta bilera Nazio Batuen egoitzan egingo da. Bilera horretarako itun honetako estatu alderdien bi herenak osatuko du quoruma, eta komiterako kide moduan hautatutzat joko dira boto gehien lortzeaz gain, bilerako estatu parte-hartzaile eta boto-emaileen ordezkarien artean botoen erabateko gehiengoa lortzen dituzten hautagaiak.

31. artikulua

1. Komiteak ez du izango estatu bereko nazional bat baino gehiago.

2. Komitea hautatzeko orduan kontuan hartuko dira geografiaren arabera banaketa orekatsua eta zibilizazio-mota desberdinen eta sistema juridiko nagusien ordezkartza.

32. artikulua

1. Komiteko kideak lau urterako hautatuko dira. Berrito hautatu ahal izango dira, baldin eta hautagai-zerrendan berrito aurkezten badira. Hala ere, lehenengo hautaketan hautatutako bederatzi kideen agintaldiak bi urte igaro ondoren amaituko dira. Lehenengo hautaketa egin eta berehala, bilerako lehendakariak, 30. artikuluko 4. paragrafoan aipatutakoak, zozketa bidez izendatuko ditu bederatzi kide horiek.

2. Agintaldia amaitu ondorengo hauteskundeak egingo dira itunaren zati honetan, aurreko artikuluetan, jasotakoaren arabera.

33. artikulua

1. Gainerako kideek ahobatezkotasunez uste badute Komiteko kide batek bere eginkizunak gauzatzeari utzi diola, aldi baterako absentziaz besteko arrazoi batengatik, Komiteko lehendakariak egitate hori jakinaraziko dio Nazio Batuetako idazkari nagusiari, eta horrek kide horren postua hutsik dagoela adieraziko du.

2. Komiteko kide bat hiltzen bada edo horren uko-egitea badago, lehendakariak berehala jakinaraziko dio hori Nazio Batuetako idazkari nagusiari, eta horrek postua hutsik dagoela adieraziko du, heriotza gertatzen denetik edo uko-egitea eragingarria denetik.

34. artikulua

1. Hutsune bat adierazten bada 33. artikuluekin bat etorritik, eta ordeztu behar den kidearen agintaldia ez bada amaitzen hutsune hori sortu eta hurrengo sei hilabeteetan, Nazio Batuetako idazkari nagusiak hori berori jakinaraziko dio itun honetako estatu alderdietako bakoitzari; estatu alderdi horiek, hutsunea betetzeko, hautagaiak aurkeztu ahal izango dituzte bi hilabete epean, 29. artikuluen 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Nazio Batuetako idazkari nagusiak zerrenda prestatuko du, hurrenkera alfabetikoaren arabera, modu horretara izendatutako hautagaiekin, eta itun honetako estatu alderdiei komunikatuko die zerrenda hori. Hutsunea betetzeko hautaketa egiaztatuko da itunaren zati honetako xedapen egokiekin bat etorritik.

3. Komiteko kide orok, 33. artikuluekin bat etorritik adierazitako hutsunea betetzeko hautatu denean, karguan jarraituko du, artikulua honetan xedatutakoarekin bat etorritik Komiteko postua hutsik utzi zuen kidearen agintaldia amaitu arte.

35. artikulua

Komiteko kideek, aldeztu aurretik Nazio Batuetako biltzar orokorrak hala onetsita, zerbitzu-sariak jasoko dituzte Nazio Batuen funtsetatik, biltzarrak orokorrak ezarri modu eta baldintzetan, komitearen eginkizunen garrantzia aintzat hartuta.

36. artikulua

Itun honen arabera, Komitearen eginkizunak eragingarritasunez gauza daitezen, Nazio Batuetako idazkari nagusiak behar adina langile eta zerbitzu ezarriko ditu.

37. artikulua

1. Nazio Batuetako idazkari nagusiak deituko du Komitearen lehenengo bilera, Nazio Batuen egoitzan egingo dena.
2. Lehenengo bilera eta gero, Komitea bilduko da bere araudian ezarritako aldietan.
3. Komitea, orokorrean, bilduko da Nazio Batuetako egoitzan edo Nazio Batuen Bulegoan, Ginebran.

38. artikulua

Eginkizunei ekin aurretik, Komiteko kideek Komiteko bilkura publikoan solemnitatez adieraziko dute, euren egitekoa inpartzialtasun eta kontzientzia osoz gauzatuko dutela.

39. artikulua

1. Komiteak hautatuko du bere mahaia, bi urterako. Mahaiko kideak berriro hautatu ahal izango dira.
2. Komiteak bere araudia ezarriko du; araudi horretan, besteak beste, hurrengoak xedatuko dira:
 - a) Hamabi kidek osatuko dute quoruma;
 - b) Komitearen erabakiak hartuko dira bertan dauden kideen botoen gehiengoarekin.

40. artikulua

1. Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute txostenak aurkezteko, hartu dituzten xedapenen inguruan, halakoek eragingarri egiten dituztenean itun honetan aitortutako eskubideak, eta eskubide horiek baliatzeari dagokionez eman dituzten aurrerapausoen inguruan:
 - a) Urtebeteko epean, itun hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, estatu alderdi interesdunei dagokienez;
 - b) Osterantzekoan, Komiteak hala eskatzen duen bakoitzean.
2. Txosten guztiak Nazio Batuetako idazkari nagusiari aurkeztuko zaizkio, eta horrek Komiteari bidaliko dizkio, azter ditzan. Txostenek zehaztuko dituzte itun hau ez aplikatzeko inguruabar eta zailtasunak, halakoak baleude.

3. Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Komitea kontsultatu ondoren, erakunde espezializatuari bidali ahal izango dizkie txosten horien zatien kopiak, halakoak bere eskumenekoak direnean.

4. Komiteak itun honetako estatu alderdiek aurkeztutako txostenak aztertuko ditu. Bere txostenak, eta egokitzat jotzen dituen iruzkin orokorrak, helaraziko dizkie estatu alderdiei. Komiteak Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari ere helarazi ahal izango dizkio iruzkin horiek, itun honetako estatu alderdietatik jaso dituen txostenen kopiarekin batera.

5. Estatu alderdiek Komiteari oharrak aurkeztu ahal izango dizkiote, artikulua honetako 4. paragrafoaren arabera egindako iruzkinetatik edozeinen inguruan.

41. artikulua

1. Artikulu honen arabera, itun honetako estatu alderdi orok edozein unetan adierazi ahal izango du Komitearen eskumena aitortzen duela, estatu alderdi baten komunikazioak jaso eta aztertzeko, estatu horrek komunikazio horien bidez alegatzen duenean beste estatu alderdi batek itunak ezarritako betebeharrak ez dituela betetzen. Artikulu honen ondorioz aurkeztutako komunikazioak soil-soilik jaso eta aztertu ahal izango dira estatu alderdi batek aurkezten baditu, eta estatu alderdi horrek adierazi badu Komitearen eskumena aitortzen duela berari begira. Komiteak ez du inolako komunikaziorik onartuko, komunikazio hori denean adierazpen hori egin ez duen estatu alderdi bati buruzkoa. Artikulu honen arabera jasotako komunikazioen izapideak egingo dira hurrengo prozedurarekin bat etorritik:

a) Itun honetako estatu alderdi batek uste badu beste estatu alderdiren batek ez dituela betetzen itun honetako xedapenak, arazo hori beste estatuaren esku utzi ahal izango du, idatzizko komunikazio baten bidez. Hiru hilabeteko epean, komunikazioa zein datatan jaso eta data horretatik zenbatzen hasita, estatu jasotzaileak komunikazioa bidali duen estatuari idatziz emango dio arazoa argitzeko azalpena edo beste edozein adierazpen; azalpen edo adierazpen horrek aipatuko ditu, ahal den neurrian eta egoki den heinean, arazoari begira hasi diren, gauzatzen ari diren edo balia daitezkeen prozedura nazionalak eta errekurtsioak.

b) Estatu jasotzaileak lehenengo komunikazioa jasotzen duen unetik zenbatzen hasita, sei hilabeteko epean, arazoa ez bada konpontzen bi estatu alderdi interesdunak asez, bi estatu alderdi interesdunetarik edonork eskubidea izango du arazoa Komitearen mende uzteko, horren gaineko jakinarazpena eginez Komiteari eta beste estatuari.

c) Komitearen mende zein arazo utzi eta Komiteak arazo horien gaineko ardura izango du, egiaztatu ondoren arazo horretan barne jurisdikzioan balia daitezkeen errekurtsio guztiak jarri eta agortu direla, nazioarteko zuzenbidean orokorrean onartzen diren printzipioekin bat etorritik. Erregela hori ez da aplikatuko aipatu errekurtsioen izapideak justifikaziorik gabe luzatzen direnean.

d) Komiteak bere bilkurak atek itxita egingo ditu, artikulua honetako komunikazioak aztertzen dituenean;

e) Aurreko c) idatz-zatiko xedapenei katerik egin gabe, Komiteak bere jardunbide egokiak estatu alderdi interesdunen esku utziko ditu, arazoa adiskidetasunez konpondu ahal izateko, itun honetan aitortutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak oinarritzat hartuz.

f) Komitearen mende utzitako arazo guztietan, Komiteak b) idatz-zatiak aipatu estatu alderdi interesdunei eskatu ahal izango die beste edozein informazio egoki ematea;

g) Aurreko b) idatz-zatian aipatu diren estatu alderdi interesdunek eskubidea izango dute ordezkaturik egoteko, arazoa Komitean aztertzen denean, eta azalpenak ahoz nahiz idatziz, edo bi eratarata, aurkezteko.

h) Komiteak aurreko b) idatz-zatian aipatu jakinarazpena zein datatan jaso eta hurrengo hamabi hilabeteetan txosten bat aurkeztuko du, eta horretan:

i) Aurreko e) idatz-zatian xedatutakoaren araberrako konponbidea lortu bada, labur jasoko du egitateen eta lortutako konponbidearen azalpena.

ii) Aurreko e) idatz-zatian xedatutakoaren araberrako konponbiderik lortu ez bada, labur jasoko du egitateen azalpena, eta estatu alderdi interesdunen idatzizko azalpenak eta ahozko azalpenen aktak gehituko ditu.

Autu bakoitzean, estatu alderdi interesdunei bidaliko zaie txostena.

2. Artikulu honetako xedapenak indarrean jarriko dira itun honetako hamar estatu alderdik artikulu honetako 1. paragrafoak aipatu adierazpenak egin ondoren. Estatu alderdiek adierazpen horiek gordailutuko dituzte Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita; idazkari horrek adierazpen horien kopia bidaliko die gainerako estatu alderdiei. Adierazpen oro edozein unetan kendu ahal izango da, idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez. Adierazpen horiek kentzea ez da oztopo izango, artikulu honen ondorioz zein komunikazio eman eta komunikazio horretako edozein gai azter dadin; artikulu honen ondorioz ez da onartuko estatu alderdi baten komunikazio berririk, idazkari nagusiak adierazpena kentzeko jakinarazpena jaso eta gero, estatu alderdi interesdunak adierazpen berria egin duenean izan ezik.

42. artikulua

1.

a) 41. artikuluaaren araberrara Komiteari bidalitako arazo bat ez bada konpontzen estatu alderdi interesdunak asez, Komiteak, aldez aurretik estatu alderdi interesdunen adostasuna izanda, Adiskidetze Batzorde Berezia (aurrerantzean Batzordea deituko dena) izendatu ahal izango du. Batzordearen jardunbide egokiak estatu interesdunen esku jarriko dira, arazoa adiskidetasunez konpondu ahal izateko, itun honetan ezarritakoa oinarritzat hartuz.

b) Batzordea osatuko dute estatu alderdi interesdunek onartzeko moduko bost pertsonak. Hiru hilabete igaro ondoren, estatu alderdi interesdunak ez badira ados jartzen Batzordea osatzeko kide guztien edo horietako batzuen inguruan, Komiteak

hautatuko ditu adostu gabeko kideak, Batzordeko kideen artean, botazio sekretuaren bidez eta bi hereneko gehiengoarekin.

2. Batzordeko kideek modu pertsonalean jardungo dute euren eginkizunetan. Kide horiek ez dira izango estatu alderdi interesdunetako nazionalak, itun honetako alderdi ez diren estatuetakoa, ezta 41. artikuluko adierazpena egin ez duten estatuetakoa ere.

3. Batzordeak bere lehendakaria hautatuko du eta bere araudia onetsiko du.

4. Batzordearen bilerak, orokorrean, Nazio Batuetako egoitzan egingo dira, edo Nazio Batuen Bulegoan, Ginebran. Aitzitik, Nazio Batuetako idazkari nagusia eta estatu alderdi interesdunak kontsultatuta Batzordeak erabakitako beste edozein toki egokitan egin ahal izango dira,

5. 36. artikuluko idazkaritzak artikuluko honen ondorioz ezarritako batzordeei ere emango dizkie zerbitzuak.

6. Komiteak jaso eta aztertutako informazioa Batzordeari emango zaio, eta horrek estatu alderdi interesduneri eskatu ahal izango die beste edozein informazio egoki emateko.

7. Batzordeak arazoaren alde guztiak aztertu ondoren, eta, edozein kasutan, hamabi hilabetetik beherako epean, arazo horren berri izan eta gero, Komiteko lehendakariari txostena aurkeztuko dio, estatu alderdi interesduneri bidal diezaien.

a) Batzordeak ezin badu arazoaren azterketa hamabi hilabetez amaitu, txostenak azalpen labur bat baino ez du jasoko, arazoaren azterketak duen egoeraren berri emanez;

b) Arazoa adiskidetasunez konpontzea lortzen bada, itun honetan aitortutako giza eskubideen errespetua oinarritzat hartuz, Batzordeak txostenean azalpen labur bat besterik ez du jasoko, egitateen eta lortutako konponbidearen berri emanez.

c) Aurreko b) idatz-zatiko konponbidea lortzen ez bada, Batzordearen txostenak jasoko ditu bere ondorioak, egitatezko alde guztien inguruan, halakoak garrantzitsuak direnean estatu alderdi interesdunen arteko arazoari begira, eta bere oharrak, arazoa adiskidetasunez konpontzeko dauden aukeren inguruan; txosten horrek jasoko ditu, halaber, estatu alderdi interesdunen idatzizko azalpenak eta ahoz egindako adierazpenen aipamena;

d) Batzordearen txostena aurreko c) idatz-zatiaren ondorioz aurkeztzen bada, estatu alderdi interesdunek Komiteko lehendakariari jakinaraziko diote, txostena jaso eta hurrengo hiru hilabeteetan, Batzordearen txostenaren edukia onartzen duten ala ez.

8. Artikulu honetako xedapenek ez dituzte ukitzen Komitearen eginkizunak, halakoak 41. artikuluan jasotakoak direnean.

9. Estatu alderdi interesdunek modu berean banatuko dituzte Batzordeko kideen gastu guztiak, Nazio Batuetako idazkari nagusiak egingo duen zenbatespenarekin bat etorriz.

10. Nazio Batuetako idazkari nagusiak ordaindu ahal izango ditu, hala behar izanez gero, Batzordeko kideen gastuak, estatu alderdi interesdunek, artikuluko honetako 9. paragrafoarekin bat etorriz, gastuak ordaindu aurretik.

43. artikulua

Komiteko kideek, eta adiskidetze batzorde berezietako kideek, 42. artikuluekin bat etorriz izendatu direnek, eskubidea izango dute Nazio Batuentzako egitekoak gauzatzen dituzten adituei zein erraztasun, pribilegio eta ukiezintasun aitortu eta halakoak eskuratzeko, Nazio Batuetako Onurabideen eta Ukiezintasunen Konbentzioko ataletan xedatutakoarekin bat etorriz.

44. artikulua

Itun honetako aplikazio-xedapenak aplikatuko dira kalterik egin gabe giza eskubideen alorrean Nazio Batuen eta erakunde espezializatuen agiri eratzailerekin eta konbentzioetan jasotako prozedurei edo agiri eta konbentzio horien ondoriozko prozedurei, eta itun honetako xedapenek ez dute eragotziko estatu alderdiek beste prozedura batzuetara jotzea, euren artean indarrean dauden nazioarteko hitzarmen orokor nahiz bereziekin bat etorriz.

45. artikulua

Komiteak urtero aurkeztuko dio bere jarduerari buruzko txostena Nazio Batuetako Biltzar Orokorrari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bidez.

V. zatia

46. artikulua

Itun honetako xedapenak ezin dira interpretatu Nazio Batuetako Gutunaren xedapenen kaltetan, ezta ere, Nazio Batuetako organo desberdinen eskumenak zehazten dituzten erakunde espezializatuen konstituzioen kaltetan edota itunaren gaien araberrako erakunde espezializatuen konstituzioen kaltetan.

47. artikulua

Itun honetako xedapenak ezin dira interpretatu herri guztiek euren aberastasun eta baliabide naturalak oso-osoan eta askatasunean izan eta erabiltzeko duten eskubideen kaltetan.

VI. ZATIA

48. artikulua

1. Itun hau sinatu ahal izango dute Nazio Batuetako edo erakunde espezializatuetakoko estatu kide guztiek, bai eta Nazioarteko Justizia Gortearen Estatutuko estatu alderdi guztiek eta Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak itun honetako alderdi izatera gonbidatutako beste edozein estatuk ere.

2. Itun hau berretsi beharko da. Berreste-agiriak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

3. Itun honi artikulua honetako 1. paragrafoan aipatu estatuetarik edozein atxiki ahal izango zaio.

4. Atxikipena gauzatuko da atxikipen-agiria Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, gordailutu dezan.

5. Nazio Batuetako idazkari nagusiak itun hau sinatu duten edo itun honi atxiki zaien estatu guztiei informatuko die berreste- edo atxikitze-agiri bakoitzaren gordailua.

49. artikulua

1. Itun hau indarrean jarriko da, berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeita hamabosgarrena zein datatan gordailutu, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, eta hiru hilabetera.

2. Berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeita hamabosgarrena gordailutu ondoren ituna berresten duen edo horri atxikitzen zaion estatu bakoitzarentzat ituna indarrean jarriko da, kasuan kasuko estatu horrek zein datatan gordailutu bere berreste- edo atxikipen-agiria eta hiru hilabete igaro ondoren.

50. artikulua

Itun honetako xedapenak aplikatuko zaizkie estatu federaletako zati guztiei, mugarik eta salbuespenik gabe.

51. artikulua

1. Itun honetako estatu alderdi orok zuzenketak proposatu eta, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, gordailutu ere ahal izango ditu horiek. Proposatutako zuzenketak Nazio Batuetako idazkari nagusiak komunikatuko dizkie estatu alderdiei; aldi berean, eskatuko die jakinarazi diezaiotela estatu alderdien Konferentziarako deialdia egitea nahi duten, proposamenak aztertu eta horien inguruko botazioa egiteko. Estatu alderdietarik, gutxienez, heren batek konferentziaren alde egiten badu, idazkari nagusiak deialdia egingo du, Nazio Batuen babespean. Konferentzian izan eta boto-emaile diren estatu alderdien gehiengoarekin zein zuzenketa onetsi eta Nazio Batuen Biltzar Orokorraren mende utziko da horiek onestea.

2. Zuzenketa horiek indarrean jarriko dira, Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak onetsi eta itun honetako estatu alderdietarik bi hereneko gehiengoak onartzen dituenean, euren konstituzio-prozedurekin bat etorritz.

3. Zuzenketa horiek, indarrean jartzen direnean, nahitaezkoak izango dira halakoak onartu dituzten estatu alderdientzako; gainerako estatu alderdiek, ordea, itun honetako xedapenak eta aldez aurretik eurek onartutako zuzenketak betetzen jarraituko dute.

52. artikulua

48. artikuluko 5. paragrafoan jasotako jakinarazpenak gorabehera, Nazio Batuetako idazkari nagusiak artikuluko bereko 1. paragrafoan aipatu estatu guztiei komunikatuko dizkie:

a) 48. artikuluan xedatutakoarekin bat datozen sinadurak, berrespenak eta atxikipenak;

b) 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik itun hau indarrean jartzeko data, eta 51. artikuluko aipatutako zuzenketak indarrean jartzeko data.

53. artikulua

1. Itun hau, Nazio Batuetako artxiboetan gordailutuko da; berebat, kautoak izango dira txinatarrez, espainolez, frantsesez, ingelesez eta errusieraz dauden itun-testuak.

2. Nazio Batuetako idazkari nagusiak itun honen kopia ziurtatuak bidaliko dizkie 48. artikuluan aipatutako estatu guztiei.